



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/28

Laespada Diputatuak, sexu esplotazioa helburu dauen salerosketaren biktimen eta euren seme-alaben arretarako zeharkako Plan integralaren barri emon dau

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Diputatuak, Sexu esplotazioa helburu dauen salerosketaren biktimen eta bizirauleen aldeko esku-hartze sozialerako Bizkaiko 2019-2021 Plana azaldu dau gaur zehaztasun handiz Bizkaiko Batzar Nagusietako jagokon Batzordearen aurrean. Zeharkako proiektu integrala da, gizarte arloko zerbitzu guztiak martxan jarten dituana, politika, epaitegi, polizia eta gizarte arloko beste erakunde batzuekaz koordinata, oso arazo larria danaren kontra burrukatzeko. Laespadaren berbetan, “ez da prostituzioa, ez da legez kanpoko inmigrazioa, askatasunen eta Giza Eskubideen zapalkuntzea da”.

Planak egoeraren diagnostikoa emoten dau eta gizakien salerosketaren definizioa be finketan dau, Palermoko Protokoloari jarraituz (Personen, batez be emakumeen eta umeen, salerosketea prebeniduteko, desagertuazoteko eta zigortzeko Nazino Batuen Protokoloa, Espainiako Estaduak 2003an berretsi ebana). Personen salerosketea da, drogen trafikoaren ostean, mundu osoan irabazi gehien emoten dauen legez kanpoko negozioa, eta bere irabaziak 32.000 milioi dolarrera heltzen dira urtean, Lanaren Nazinoarteko Erakundeak adierazo dauenez.

Kalkuletan danez, urtean Espainian 40.000 eta 50.000 emakume artean esplotetan dira, eta herrialde hori da personen salerosketako sareen jomugako eta igaroteko herrialde nagusietakoa. Europan, 140.000 emakume dirala aurreikusten da. Gehienak 23 eta 27 urte arteko emakume gazteak dira, baina bai poliziak eta baita gizarte arloko erakundeek be, esplotautako adinbakoen kasu kopuruak gora egin dauela ikusi dabe, arduraz. Kopuru horrek ustezkoak dira, lakra ezkutu eta ikusezina dalako, eta asko diralako jasaten dabena salatzen ez daben emakumeak.

Bizkaian sexu esplotazioa jasaten daben biktimei jagokenez, Askabidek 5 emakumeri eta adinbako bati eskaini eutsen arretea 2015ean, eta 2017an arretea jaso dabenak 24 emakume eta adinbako bat izan dira. Oblata Ahiztek, salerosketako 41 biktimari eskaini eutsen arretea 2015ean, 63ri 2016an eta 68ri 2017an. Hiesaren kontrako Batzordeko emakume eta prostituzio programara 171 emakume nigeriar gerturatu ziran 2015etik 2017ra, eta horreetatik 86 lehen aldiz joan ziran laguntzea eskatzera. Gurutze Gorriak, bere aldetik, sexu esplotazioa jasan izanaren aztarnak dituen 40 emakume hauteman ditu urte horreetan.

Jatorriari jagokonez, biktima gehienak nigeriarrak dira; izan be, erakunde batzuek, CEAR-Euskadik, adibidez, esaten dabenez, gure erkidegoa, sexu esplotazio helburuetarako Nigeriako emakumeen salerosketaren banaketa gune bilakau da. Emakume horreen beste jatorri batzuk Nikaragua, Honduras, Ginea Conakry edo Boli Kosta dira. Diputatuak azpimarratu dauenez, ez dagoz beti giltzapetuta. “Errealidadea gogorragoa da, badagoz, askatasunik ez daukien arren, supermerkatuan, gure ondoan, erosketak egiten egon daitekezan emakumeak”, esan dau.

Biktimek euren bahitzaileakaz hartzen daben zorra “6.000 eta 60.000 euro artekoa da, eta prostituzinora behartzeko erabilten dituen teknikak mota askotakoak dira”, adierazo dau Laespadak. Tratulariek pobrezia eta desbardintasun egoeretan negozioa egiteko aukerea ikusten dabe, eta emakumeak eurenganutzen ditue, maitasunagaz, erlijinoagaz edo bestelakoakaz erlazonautako trikimailuakaz. Danak guzurra esanda datoz, baina badagoz aldeak.

Ekialdeko herrialdekoetakoak maitasunaren bitartez engainauta datoz, Hego Ameriketakoak etxeko beharretan arituko dirala pentsauta datoz, Sahara azpiko Afrikako emakumeak, jatorrizko herrialdean familiari lotuta dagon zorra hartzen dabe, eta horrek asko zailtzen dau euren bahitzaileengandik iges egiteko aukerea.

Planak, Botere Judizialeko, Fiskaltzako, Estaduko Segurtasun Indarretako eta Gorputzetako, Emakundeko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunen ekarpenak jasoten ditu, eta baita unibersidadeko adituenak, Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariak eta Deustuko Unibertsitateko Psikologia Fakultadeko kideak be, hirugarren sektoreko erakundeak ahaztu barik, Askabide, Oblata Ahizpak, Gurutze Gorria, CEAR-Euskadi, Hiesaren kontrako Batzordea, Save the Children Euskadi, Munduko Sendagileak... Horreek guztiek martxan jarteko orduan be hartuko dabe parte, Diputatuak azpimarratu dauen moduan, arazo konplexua eta eten barik aldatzen dana da, eta horri ekiteko beharrezkoa da Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Saileko arlo guztietan behar egitea eta indar polizialakaz, kontsuletxeakaz eta politika, gizarte eta epaitegiakako erakundeakaz koordinetea.

2021eko epemugagaz, planak 6 jarduketa ardatz jasoten ditu (arreta integrala, prestakuntzea, prebentzinoa eta sentsibilizazinoa, koordinazinoa eta sareko beharra, ikerketea eta ezagutzaren hobekuntzea). Horreekaz batera, neurri eta helburu jakin batzuen egutegia be ezarten da, horreek gauzatzeko epea barru dala. Aurretiazko susmoak nahikoak izango dira emakume horreei eta euren seme-alabei arreteka emoteko, salaketarik jarri ez badabe be, eta “salerosketaren biktima diran emakumeentzat eta euren seme-alabentzat ibilpide berezia eta indibidualizaua” jarriko da martxan, “alternatiba bat eskainiz eta euren autonomia eta ahalduntzea landuz”, azpimarratu dau Laespadak.

Horreen artean, herritarrei zuzendutako sentsibilizazino kanpainak egongo dira, arazoa ezagutuazoteko eta mitoak eta estereotipoak apurtzeko, sexu esplotazinoaren biktima horreen bezero diran gizonei zuzendutakoak, eta baita komunikabideei zuzendutako prestakuntzea be, lakra horren kontrako burrukan lagundu daien. Ganera, urtero, proiektuaren emaitzen ganeko informazinoa emongo da Bizkaiko Foru Aldundiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren barruan. Izan be, ekimenak ezarten dauen moduan, “sexu esplotazino helburua daukan personon salerosketea, Giza Eskubideen beste bortxaketa larri batzuekaz batera heltzen dan genero indarkeria da”.

‘Aita Mari’ eta ‘Open Arms’ itsasontzien aldeko jarrerea

Horrez gain, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Batzordeak 8 puntu eukazan Arauz Besteko Proposamen luze bat onetsi dau. Proposamenaren lehenengo 6 puntuak aho batez onetsi dira, eta azkenengo biak, zazpigarrena eta zortzigarrena, Euzko Abertzaleak, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen aldeko botoakaz eta Euskal Sozialistak, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa taldeen 4 abstentzinoakaz onetsi dira.

Lehenengo sei puntuetan, Arauz Besteko Proposamenak Bizkaiko Batzar Nagusien alkartasuna erakusten deutse *Aita Mari* itsasontziko tripulazinoari eta, orokorrean, persona guztien eskubideen alde behar egiten daben GKE guztiei, eta itsasoan dagozan personei laguntzea eta horreen eskubideak babestea Estaduen betebeharra dala adierazoten dau. Aldi berean, Itsaso zabalean laguntzea jasoten daben personon eskubideak bermatzen dituan kudeaketa eredia preminaz diseinetako eskatzen jako Europar Batasunari, horreen lehorreratzea gertuen dagon portu seguruan egin ahal izateko.

“Hori holan egiten ez dan bitartean, Europar Batasuneko Estaduek euren itsasoko laguntza zerbitzuen eta giza laguntzako erakundeen arteko ahalik eta koordinazino onena bermatu behar dabe”, esaten dau proposamenak. Horrez gain, eskaria egiten jako Bizkaiko Foru Aldundiari, beste erakunde batzuekaz batera modu koordinatuan behar egin daian, inmigrazinoa sortzen daben zergaitiak aztertzeke eta konponbideak bilatzeko, eta baita Euskadin bizi diran edo bertatik

igaroten diran etorkinei, errefuxiatuei edo bidean doazanei arretea emoteko be, gizarte justizian eta Giza Eskubideetan oinarrituta jardunez. Horrez gain, proposamenak modu proaktiboan behar egiteko eskatzen deutso Bizkaiko Foru Aldundiari, ganerako erakundeakaz lankidetzan, *Aita Mari* itsasontziari Mediterraneoan personak salbetako aurrera daroan beharragaz jarraitzen itziko deutesen tresnak eta konponbideak bilatzeko.

Puntu horreek guztiek talde danen aho bateko baiezkoa jaso dabe. Azkenengo puntu biek beste emaitza bat izan dabe, Euskal Sozialistak, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa taldeak abstenidu egin diralako. Zazpigarren eta zortzigarren puntuan, Batzar Nagusiek Sustapen Ministerioko Merkataritza Itsasketako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren kontrako eretxia erakusten dabe. Ebazpen horrek debekau egiten deutso *Aita Mari* ontziari Mediterraneo itsasoan dagozan personak zaintzeko eta jasoteko lanak egitea. Estaduko Gobernuari *Aita Mari* eta *Open Arms* itsasontziei nabegetako betoa altxetako eskatzen jako. “Debeku hori, lege eta prozedura aldetik oso eztabaidagarriak diran atxakiatan dago oinarrituta eta, edozelan be, indarra galtzen dabe Nazinoarteko Zuzenbideak babesten dauen on nagusiaren aurrean”.

EH Bilduko Josu Unanuek eta David Lopategik aurkeztu dabe gai horren ganeko Arauz Besteko Proposamena, eta horren aurrean Podemos Bizkaia eta Euzko Abertzaleak taldeek osotasuneko zuzenketa-eskeak aurkeztu ditue, eta Euskal Sozialistak taldeak zuzenketa-eske bat. Gaur goizean bertan, EH Bildu, Euzko Abertzaleak eta Podemos Bizkaia taldeek zuzenketa-eske transakzionala adostu dabe, eta hori da azkenean onetsi dana, azaldu dan emaitzeagaz.

Batzordeak Arauz Besteko beste Proposamen bat be onetsi dau, talde guztien adostasunagaz, Gizarteratzeko Laguntzak jasoteko Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dagozan eskakizunak aldatzeko, ez datozalako bat holango prestazinoak arautzen dituan 60/2011 Dekretuan aurreikusten danagaz. Podemos Bizkaia Eneritz De Madariagak aurkeztutako proposamenak talde guztien aho bateko baiezkoa jaso dau.

Gizarteratzea

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Diputatua berak eskatuta etorri da, Sexu esplotazioa helburu dauen salerosketaren biktimen arretarako Plan integrala azaltzeko, eta EH Bilduk eskatuta, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren jarraipenaren ganeko informazioa emoteko. Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak, “eguneko zentroetako plazei jagokenez eskualdeen artean dagozan desoreken” eta “Ezkerraldean eta Enkarterrin dagon plaza gabeziaren” ganeko azalpenak eskatu deutsaz.

Diputatuak azaldu dauenez, 2018ko urtarrilaren 1ean 557 plaza egozan eguneko zentroetan, planaren helburuaren %151eko estalduragaz. Adierazo dauenez, aurtongo bukaerarako plaza kopurua 833ra helduko da. Egun berean, gaueko arretarako 22 plaza egozan, proiektatutakoak 19 ziran arren. Egoitzetako plazatan egozan aurreikuspenak be gainditu dira, 2018ko urtarrilaren 1ean 343 ziran eta.

Laespadak azpimarratu dauenez, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren helburuak gainditu egin dira, eta bere Sailak, zerbitzuak goi mailako espezializaziora eta persona bakoxtari arreta individualizaua emotera doan transizinoan egin dau behar. “Gizarteratze zerbitzu modernoa eta barritzailea daukagu, eta Bizkaia inklusiboagoaren alde beharrean jarraitzen dogu”, azpimarratu dau.

Erantzunen txandan, Urkaregik berretsi egin dau beharrezkoa dala plazak eskualdeen artean hobeto banatzea “garrantzitsua dalako zerbitzu horreek gertukoak izatea”. Arturo Aldecoak (Talde Mistoa) be zerbitzu batzuek lurralde batzuetatik beste batzuetara daukiezan aldeak azpimarratu ditu, eta Gizarteratze Sailak “preminazko gizarte errealidade horri” erantzun ahal izatea opatu dau.

Eduardo Andrések (Bizkaiko Talde Popularra) esan dauenez, Laespadak aurkeztu dauen dokumentazinoa aztertuko dabe, “eta zalantzaren bat baldin badaukagu, helduarazo egingo deusugu”. Eneritz De Madariagak (Podemos Bizkaia) goraipatu egin dau “gaur egungo behar indibidualei erantzuteko” Sailak egiten dauen esfortzua, eta arduratuta agertu da, gero eta gazte gehiago bizi diralako kaleetan.

Juan Otermin Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak zoriondu egin dau Laespada, bere Sailak egindako lanarengaitik. “Modu kuantitatiboan eta kualitatiboan egin da aurrera”. Euzko Abertzaleak taldearen izenean, José Ángel Basaurik “ahalegina ez izteko” eskatu deutso Diputatuari, “Bizkaia osoa abiadura berean ez badoa be, inor atzean geratu ez daiten”.

Taldeen esku-hartzearen ostean, Laespadak EH Bilduko Urkaregi batzordekideari erantzun deutso, esanez, proiektinoetatik harago, “gurago dot errealidadera egokitu, Bilbo dalako bazterketa egoeran dagon biztanle gehieneko lekua”. Kanean dagozan gazteei jagokenez, horreei arretea emoteko plazak ari dirala eratzen esan dau, baina “Udalek be euren egitekoak egin behar ditue”, gehitu dau.

Begoña Gil Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Batzordeko presidentek, agintaldi honetako azkenengo bilerea baliatu dau batzordekideei “euren beharra eta dedikazinoa” eskertzeko, eta, azpimarratu dauenez, lau urte honeetan behar gehien emon dauena Bardintasunari buruzko Araua izan da, bertan 200 zuzenketa eske baino gehiago eztabaidatu ziran eta. Teresa Laespada diputatuak euren “ulermena eta enpatia” eskertu deutse batzordekieei, eta “Gobernua kontroletako” egiten daben beharra be jarri dau balioan. “Gizarte arloko justiziaren alde egiten dogu behar”, esan dau amaitzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
28/03/2019

La Diputada Laespada presenta el Plan integral y transversal de atención a las víctimas de trata con fines de explotación sexual y a sus hijos e hijas de Bizkaia

La Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha explicado hoy con gran detalle ante la Comisión de las Juntas Generales de Bizkaia el Plan de Intervención con Víctimas y Supervivientes de Trata con fines de explotación sexual 2019-2021. Se trata de un proyecto integral y transversal que pone todos los servicios sociales en marcha y en coordinación con otras organizaciones políticas, judiciales, policiales y sociales para luchar contra un grave problema que, en palabras de Laespada, “no es prostitución, no es inmigración ilegal, es una vulneración de las libertades y los Derechos Humanos”.

El plan establece un diagnóstico de la situación y fija también la definición de trata, siguiendo el Protocolo de Palermo (Protocolo de Naciones Unidas para prevenir, suprimir y castigar la trata de personas, especialmente de Mujeres y Niños, que fue ratificado por el Estado Español en 2003). La trata de personas es, tras el tráfico de drogas, el negocio ilícito más lucrativo del mundo y sus beneficios alcanzan los 32.000 millones de dólares al año, según la Organización Internacional del Trabajo.

Se calcula que 40.000 y 50.000 mujeres son explotadas sexualmente en España, uno de los principales países de destino y de tránsito de las redes de trata. En Europa, la cifra estimada es de 140.000 mujeres. La mayoría son mujeres jóvenes de entre 23 y 27 años, aunque tanto fuentes policiales como organizaciones sociales han constatado un preocupante aumento de casos de menores explotadas. Estos números son estimados porque se trata de una lacra oculta e invisible y son muchas más las mujeres que no denuncian que las que lo hacen.

Respecto a las víctimas de explotación sexual en Bizkaia, Askabide ha pasado de atender a 5 mujeres y a un menor en 2015 a atender a un total de 24 mujeres y 1 menor en 2017. Las Hermanas Oblatas atendieron a 41 víctimas de trata de 2015, a 63 en 2016 y a 68 en 2017. Al programa de mujer y prostitución de la Comisión Antisida acudieron de 2015 a 2017 un total de 171 mujeres nigerianas, de las que 86 llegaron por primera vez a pedir ayuda. Cruz Roja, por su parte, ha detectado en esos mismos años a un total de 40 mujeres con indicios de ser explotadas sexualmente.

Respecto al origen, la mayoría de las víctimas son nigerianas; de hecho, algunas organizaciones como CEAR-Euskadi aseguran que nuestra comunidad se ha convertido en un centro de distribución para la trata de mujeres nigerianas con fines de explotación sexual. Nicaragua, Honduras, Guinea Conakry o Costa de Marfil son algunos de los lugares de procedencia de estas mujeres que no siempre están encerradas, según ha destacado la Diputada. “La realidad es más dura, hay mujeres que, sin ser libres, pueden estar haciendo la compra en el supermercado a nuestro lado”, ha lamentado.

La deuda que contraen las víctimas con sus captores “varía entre los 6.000 y los 60.000 euros y las técnicas para obligarles a ejercer la prostitución son muy variadas”, ha asegurado Laespada. Los tratantes ven la posibilidad de hacer negocio de situaciones de pobreza y desigualdad y someten a las mujeres con tretas amorosas, religiosas o de otra índole.

Aunque todas vienen engañadas, a las mujeres de países del Este se les engaña por la vía amorosa, las latinoamericanas vienen pensando que trabajarán en el servicio doméstico y en el caso de las mujeres de África subsahariana, contraen una deuda está vinculada a su familia en el país de origen, lo que dificulta muchísimo que puedan huir de sus esclavizadores.

El plan incluye las aportaciones de responsables del Poder Judicial, Fiscalía, Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado, Emakunde y Gobierno Vasco así como expertos del ámbito universitario, personal técnico de la Diputación de Bizkaia y de la Facultad de Psicología de la Universidad de Deusto y de entidades del tercer sector como Askabide, Hermanas Oblatas, Cruz Roja, CEAR-Euskadi, Comisión Antisida, Save the Children Euskadi Médicos del Mundo. E igualmente intervendrán en su puesta en marcha, pues, como ha incidido la Diputada, es un problema complejo y cambiante cuyo abordaje exige la mirada en todas las áreas del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y la coordinación con fuerzas policiales, consulados y con entidades políticas, sociales y judiciales.

Con horizonte en el año 2021, el plan incluye 6 ejes de actuación (atención integral, formación, prevención y sensibilización, coordinación y trabajo en red, investigación y mejora del conocimiento) que van acompañadas de un calendario de medidas y objetivos concretos con un plazo a desarrollar. Bastarán indicios previos para atender a estas mujeres y a sus hijos e hijas, aunque no hayan denunciado, y se creará “un itinerario especial e individualizada para las mujeres víctimas de trata y sus hijos e hijas, ofreciendo una alternativa y trabajando su autonomía y empoderamiento”, ha subrayado Laespada.

Entre ellas, habrá campañas de sensibilización dirigidas a la ciudadanía para dar a conocer esta problemática y romper mitos y estereotipos, destinadas a los hombres que son clientes de estas víctimas de explotación sexual e incluso formación para los medios de comunicación con el objetivo de que contribuyan a luchar contra esta lacra. Además, cada año se ofrecerá información sobre los resultados de este proyecto dentro del Observatorio de Violencia Machista de la Diputación Foral de Bizkaia. Y es que tal como esta iniciativa establece “la trata con fines de explotación sexual es una violencia de género que llega acompañada de otras violaciones graves de Derechos Humanos”.

Apoyo a ‘Aita Mari’ y ‘Open Arms’

Además, la Comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad ha aprobado una larga Proposición No de Norma con 8 puntos. Los 6 primeros puntos de la propuesta han sido aprobados por unanimidad, mientras que los dos últimos puntos, el séptimo y el octavo, han salido adelante con la suma de 12 votos a favor de Nacionalistas Vascos, EH Bildu y Podemos Bizkaia y con las 4 abstenciones de Socialistas Vascos, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto.

En sus primeros seis puntos, esta Proposición No de Norma declara la solidaridad de las Juntas Generales de Bizkaia a la tripulación del buque *Aita Mari*, y en general, a las ONG que trabajan por los derechos de todas las personas, manifiestan que el auxilio a personas náufragas y la protección de sus derechos es una obligación de los Estados y piden a la Unión Europea que diseñe con urgencia un modelo de gestión que garantice los derechos de las personas náufragas asistidas en alta mar, de manera que su desembarco se produzca de forma previsible en el puerto seguro más próximo.

“Mientras esto no sea así, los Estados de la Unión Europea deben garantizar la mejor coordinación posible de sus servicios de asistencia en la mar con las organizaciones humanitarias”, declara la propuesta que insta también a la Diputación Foral de Bizkaia a trabajar coordinadamente con otras instituciones para analizar las causas que originan la inmigración y para buscar soluciones, así como para atender a las personas migrantes, refugiadas y en tránsito que viven o pasan por Euskadi, actuando sobre la base de la justicia social y de los Derechos Humanos.

La propuesta insta además a la Diputación Foral de Bizkaia a trabajar de forma proactiva, en colaboración el resto de instituciones, en la búsqueda de herramientas y soluciones que permitan al buque *Aita Mari*, continuar su labor de salvamento de personas en el Mediterráneo.

Todos estos puntos han contado con el respaldo unánime de todos los grupos. Un resultado diferente han tenido los dos últimos puntos, en los que se han abstenido los grupos Socialistas Vascos, Grupo Popular Vizcaíno y Grupo Mixto. En el séptimo y octavo punto, las Juntas Generales manifiestan su rechazo a la resolución de la Dirección General de la Marina Mercante del Ministerio de Fomento, que impide al *Aita Mari* realizar labores de vigilancia y recogida de personas náufragas en el Mediterráneo e instan al Gobierno del Estado a que levante el veto de navegación al *Aita Mari* y al *Open Arms*, “prohibición basada en excusas legales y procedimentales muy discutibles y que, en todo caso, decaen ante el bien mayor protegido por el Derecho Internacional”.

Josu Unanue y David Lopategi, junteros de EH Bildu, habían presentado a debate y votación una Proposición No de Norma sobre esta cuestión, contra la que habían presentado enmiendas a la totalidad tanto Podemos Bizkaia como Nacionalistas Vascos y una enmienda única el grupo Socialistas Vascos. Esta misma mañana EH Bildu, Nacionalistas Vascos y Podemos Bizkaia han pactado una enmienda transaccional que es la que finalmente se ha aprobado con el resultado anteriormente explicado.

La comisión ha aprobado además otra Proposición No de Norma, con el consenso de todos los grupos, para modificar el contenido que aparece en la web de la Diputación Foral de Bizkaia sobre los requisitos para acceder a ayudas de inclusión social, porque no se ajusta al Decreto 60/2011 que regula este tipo de prestaciones. La propuesta, presentada por Eneritz De Madariaga, apoderada de Podemos Bizkaia, ha conseguido el respaldo unánime de todos los grupos.

Inclusión Social

Teresa Laespada, Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, ha comparecido hoy a petición propia para explicar el Plan integral de atención a víctimas de explotación sexual y también, a petición de EH Bildu, para informar sobre el seguimiento del Plan Estratégico de Servicios Sociales. Arantza Urkaregi, apoderada de EH Bildu, le ha pedido explicaciones, en concreto, sobre “los desequilibrios existentes entre comarcas en las plazas de centros de día” y el déficit de plazas en la Margen Izquierda y Las Encartaciones.

Según ha explicado la Diputada, a 1 de enero de 2018 había 557 plazas en centros de servicio de día, con una cobertura del 151% del objetivo del plan y ha asegurado que a finales de este año las plazas aumentarán hasta 833. En esa misma fecha, había 22 plazas de atención nocturna, frente a las 19 proyectadas. También se han superado las previsiones en plazas residenciales que a 1 de enero de 2018 llegaban a las 343.

Laespada ha subrayado que se han superado los objetivos del Plan Estratégico de Servicios Sociales y ha destacado que su Departamento ha trabajado por la transición de los servicios hacia una alta especialización y hacia la atención individualizada a cada persona. “Tenemos un servicio de inclusión social moderno e innovador y seguimos trabajando por una Bizkaia más inclusiva”, ha subrayado.

En el turno de réplica, Urkaregi ha incidido en la necesidad de repartir mejor las plazas entre las comarcas “porque es importante que esos servicios sean próximos”. Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) también ha incidido en las diferencias territoriales en algunos servicios y ha deseado que el Departamento de Inclusión Social consiga dar respuesta a “esta realidad social acuciante”.

Eduardo Andrés (Grupo Popular Vizcaíno) ha asegurado que estudiarán la documentación presentada por Laespada y “si tenemos alguna duda, se la haremos llegar”. Eneritz De Madariaga (Podemos Bizkaia) ha alabado el esfuerzo realizado por el Departamento “para dar respuesta a las necesidades individuales y actuales” y ha mostrado su preocupación por el aumento de jóvenes que viven en las calles.

Juan Otermin, portavoz de Socialistas Vascos, ha dado la enhorabuena a Laespada por el trabajo de su Departamento. “Se ha avanzado cuantitativa y cualitativamente”. En nombre de Nacionalistas Vascos, José Ángel Basauri ha pedido a la Diputada que “no cejen en su empeño” para que, “aunque no toda Bizkaia vaya a la misma velocidad, nadie se quede atrás”.

Tras la intervención de los grupos, Laespada ha contestado a la juntera Urkaregi de EH Bildu que más allá de las proyecciones, “prefiero adecuarme a la realidad, porque es en Bilbao donde hay más población en situación de exclusión”. Respecto a la situación de jóvenes en la calle, ha asegurado que se están creando plazas para atenderles, aunque ha incidido en que “los Ayuntamientos también tiene que hacer sus deberes”.

Begoña Gil, presidenta de la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, ha aprovechado la última reunión de esta legislatura para agradecer a junteros, junteras, “su trabajo y dedicación” y ha destacado como lo más trabajoso de estos cuatro años la elaboración de la Norma de Igualdad, en la que se debatieron más de 200 enmiendas. La Diputada Teresa Laespada también ha agradecido a apoderados y apoderadas por su “comprensión y empatía” y también ha puesto en valor su labor de “control al Gobierno”. “Trabajamos por la justicia social”, ha concluido.